



Faxismo demokratikoak ideiak isiltzen, ahoak isilarazteen eta begiak ixten jarraitzen du: Euskal Herrian ehunka mila pertsona baztertu politikotzat tratatua izan da, ideologikoki adierazteko aukerarik ez dutela, beste guzietatik bananduak beraz. Batasunaren ilegalizazioa ondoren AuB plataforma elektoralaren listena etorri da, apartheid politikoa eta ideien debeku hau salatzen desobediencia zibileko ekintza batera deitu dute, debekatutako aukerak masiboki botatzen datza ekintza hau.

Hau ere gehiegizkoa iruditzen zaio itogarria den errepresioarentzat, hautes paperak sortzen dituzten enpresak ikertu eta eskua hartu baitituzte, zentsuraren aurkako gizartearen gaitzespena jasota ez gelditzeko, berriro ere delitu kontsideratzen den gaitzespen bat.

Erabat ulertzen ditugu neurri hauek eta ez dugu gure borrokaren pittin bat ere galduko hauek aldatzen. Badakigu bere sistemaren parte direla eta hobe da kapitalaren morroiek libreki pentsatzea delitua dela ez ezkutatzeko. Onartzen dugu, borrokatzen dutena gu zehazki garena delako, eta erasotzen duguna beraiak sortutakoa delako. Haragizale batek bere izaera aldatzeko saiakeretan denbora galdu gabe, bere aparatu errepresiboa, oligarkia esplotatzailea, beren masa tontotze komunikabideak, beraien morrontza sistema politikoa edo Gobernu mundialaren hurrengo bilera delitutzat jotzen ditugu. G8 ilegaltzat jotzen dugu eta Genoan egin genuen bezala eta beti egingo dugun moduan aurre egingo diogu.

!G-8a hondora dezagun!



Ekainaren 1etik 3ra Evianen, Frantzia, 7 herrialde aberatsen eta Errusiaren arteko bilera izango da, orain dela bi urte Genoan egin zuten bezala eta pasadan urtean Kanadan bezala. Aznar estatu espainiarraren gobernuburua han egongo da. Orduan bezala, bere burua "munduaren jabe" izendatu duten hauek guda makinarian sakontzen, askatasun, gizarte eta langile eskubideen murrizketan eta prekaritatean, miseria eta heriotza zabaltzen jarraitu nahi dute.

Orduan bezala, gure esku dago gelditzea: Erresistentziaren trenera igo!

Gerraren aurkako gure ahotsa entzuteko garaia da! Gaizkiaren gizonek inposatutako orden hau nahi ez dugula esateko! Gizon eta emakume guztiak Evianera! G8ri ez! Gerrari ez! MOBILIZAZIO GLOBALERAKO SARETIK frantziar eta suitzar koalizioek prestatzen ari diren zenbait ekintzetan parte hartzeko autobusak antolatu ditugu. Gerraren eta G8aren aurkako nazioarteko manifestaldia igandean izango da, deszentralizaturiko ekintzak eta aurkako gailurrak larunbatean, eta ostegunetik eztabaidak, konferentziak eta tailerrak aurkako gailurraren markoaren barnean.

Euskal Herriko, badaude hainbat talde protesta honetara gehitzeko lanean dabiltzanak. Maiatzaren 24 eta 25ean egongo da Bilbon [tailer bat](#) G8 lantzeko. Eta autobus Evian-era joateko prestatzen ari dira. Informazio gehiago nahi ezker, idatzi helbide honetara >> jsanzlan@quim.ucm.es edo deitu 94-4790703.

Bestalde, badira hilabete batzuk hainbat erakunde elkar lanean dabiltzanak zenbait mobilizazio >>

<http://euskalherria.indymedia.org/eu/2003/04/6568.shtml> aurrera eraman ahal izateko.

[informazio zati bat Indymedia Euskal Herriko lortu]

+ info : <http://www.euskalherria.indymedia.org>
<http://www.g8illegal.lautre.net/>

2003ko Ekainean Europako Gailurra Salonikan

Ostatu hartzeko lekua 03/6/14ean irekiko da, Europako gailurra baino aste bat lehenago (03/6/20-21ean). Aste honetan zehar lau egunetako festibal bat izango da, bertan konferentziak, bideo forumak etab. egongo direlarik. Gailurreko lehenengo egunean bilera ofiziala egiten den inguruetan manifestaldi bat izango da. Bigarren egunean (03/6/21) Salonika erdian manifestaldi bat izango da. Gurekin borrokatzea gonbidatua zaude!
[\[www.resistance2003.gr\]](http://www.resistance2003.gr) [\[www.lahaine.org/global/acerca_salonika03.htm\]](http://www.lahaine.org/global/acerca_salonika03.htm)

Genoan Carlo Giuliani erail zuten karabinieriaren aurkako kasua artxibatua



Instrukzioko epaileak Silvio Franz fiskalaren eskaera onartu du, honek, kasuaren artxibatzea eskatu zuen, Carloren erailketa, erailketa ez zela izan esan du, honen ordez "zilegizko defentsan" egindako hilketa bat dela esan du.

"Oso zaila egiten da momentu hauetan komentario bat egitea, nahiz eta espero izan, beti ematen du min. Esan nahi dudana da, gu ez garela egiaren beldur, beste batzuk ordea bai", esaten zuen Carloren amak.

Beste alde batetik, nahiz eta Parlamentuaren eta fiskalzaren aurrean esandako gezurrak eta izandako mesfidantzak, eta Genoan gertatutako guztia, implikaturiko goi ofizial bakar batek ere ez du bere postua galdu. Erabat adierazgarri da Mario Placanca, Carlo Giulianiren ustezko hiltzailea berriro ere zerbitzura itzuli dela.

Artxiiboak ez luke Carloren erailketari buruzko ikerketa bakarrik geldituko, piazza Alimondan eta botere egoitzetan ordenu publikoa kudeatu zuten erantzunkizuna deuseztatuko luke. Era berean Genoaren inguruan irekitako beste hainbat berebiziko sumarioentzako eragina izan dezake. Hainbat eta hainbat polizi jipoi artxibatutak izango dira, hauen erantzuleak identifikatzen ez badira: Genoa Social Forumak bideak, argazkiak eta testigantzak jasotzeko deialdi bat egin du. Genoa hemen ixten ez delako. Hainbat deialdi egin dira erabaki honen aurka Italian.

Euskal Herria: Maiatzak 25ean badugu zer esan, (EHK)Euskal Herriko Komunisten oharra.



M25eko hauteskundeetara aurkezten diren ezker abertzaleko herri plataformei erabateko sostengua adierazi nahi diegu.

Sostengu hau euskal herri langilearen eta bere aliatuen arteko batasun beharrezko oinarritua dago, euskal herritarren banakako eskubide eta eskubide kolektiboen aurka espainiar gobernu faxistaren erasoaren aurrean. Testuinguru honetan, bozka baliagarri bakarra plataforma ezkeriar eta independentisten aldekoa da, inola ere, erantzukizuna izan arren, hego Euskal Herriko herritarren eskubideak, hauteskunde hauetan defendatu ezin izan duten horientzako: bozka hori, bozka baliogabea da, azken 25 urteek berretsi diguten bezala, bozka hori gure herriarentzat askapen nazionala eta sozialaren etsaientzat txeki zuri bat da. EHK-k herrietako plataforma hauentzako bozka eskatzen diogu euskal herritar orori eta era berean, munduko herri guzietako ezkeriar eta sektore aurrerakoiei sostengua.

Borroka sarean

www.mediaberri.org
www.euskalherria.indymedia.org
www.stoptortura.org
www.kalegorria.net

www.antorcha.org
www.barcelona.indymedia.org
www.gaztesarea.org
www.segi-gazte.com
www.nodo50.org/izca

www.cgt.es
www.nodo50.org/rashmadrid
www.boltxe.net
www.cnt.es/gipuzkoa/
www.galiza.indymedia.org

